



3 UDALBATZARRA  
Atsobakarreko zaharren egoitza, eskualdatuta

Orain arte Udaletxeak kudeatu duen arren, Gipuzkoako Foru Aldundiak hartuko du bere gain Atsobakarreko egoitzaren ardura. Asteleheneko ezohiko Udalbatzarrean alderdiek onartutako neurria da hori, EHBildu, PSE-EE, EAJ eta LOHPren aldeko bozkekin. PPK aldiz, kontra bozkatu zuen. Ez zen abstentziorik izan.

4 MUSIKA  
Musikarien egunean, gazteen kontzertua Manuel Lekuonan

Santa Zezilia eguna ospatu zuten atzo Udal Musika Eskolako ikasle eta irakasleek kultur-etxeako areto-nagusian eman zuten kontzertuaren bidez. Gitarrak, pianoa, trikitixa eta panderoa, flautak eta bilinak entzuteko aukera izan zuten Manuel Lekuonara hurbildu ziren herritarrek. Besteak beste, 'Nere herriko neskatxa maite' eta 'Xalbadorren heriotza' kanta euskaldunak edota 'Frere Jaques' eta 'La Bamba' ezagunak jo zituzten gaztetxoek, ikasturtean ikasten ari direnaren erakusgarri.



Emakumeenganako indarkeriaren aurka Azaroaren 25a ardatz, egitarau zabala prestatu du Udalak

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna da azaroaren 25a eta horren harira, ekintza sorta zabala prestatu dute Lasarte-Oriako Udalak eta Sexuen Arteko Bizikidetzarako Emakumeen Zentroak. Tailerra, zinema saioa, ipuin-kontalaria, elkarretaratzea, antzerkia eta argazki erakusketa antolatu dituzte, emakumeek bizi duten "indarkeria" eta "diskriminazioa" salatze-ko helburuarekin.

Asteartean azaldu zituzten ekintzen nondik norakoak Gorka Lizarraga Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak, Izaskun Oronoz arloko arduradunak eta Maite Iglesias eta Joana Azpitarte Emakumeen Zentroko berdintasun teknikariek.

Lizarragak Udalaren ize-nean azaldu zuen gizartearen oraindik "dimentsio, adin zein kultur talde" desberdinetan "errotuta" dagoela emakumeenganako indarkeria eta "botere-harreman" horren kontra lan egiten jarraitu beharra dagoela.

Izan ere, Gorka Lizarraga Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak adierazi moduan, emakumeen aurkako indarkeria "publikoa" eta "soziala" da. Beraz, bizitza publiko zein pribatuan gertatzen diren "indarkeria-ekintza fisiko, psikologiko, sexual, sozial, sinboliko eta ekonomikoak" salatze-ko konpromezua hartu du Udalak, "menderatze-harremanak" desagertu arte.



Izaskun Oronoz, Joana Azpitarte, Maite Iglesias eta Gorka Lizarraga ekintzen aurkezpenean.

Egitarau oparoa

Lanketa hori bultzatzeko, udalak atzotik hasita urtarillaren 5era arte ekintza ugari prestatu ditu.

Atzo arratsaldean, Myrian Herbon genero indarkerian adituak 'El buen amor es imposible' hitzaldi-tailerra eman zuen Sexuen Arteko Bizikidetzarako Emakume Zentroan.

Bihar berriz, Beatriz Egizabal ipuin-kontalariak 'Baziren behin neska abenturazaleak eta mutil ameslariak, ipuina kontatuko du liburutegian 11:00etan hasita, lau urtetik gorako haurrentzat.

Datorren ostiralean, hilak 28, Emakumeen Zentroko Makelur antzerki taldeak 'Belarrira kontatzeko ipuinak' obra eskainiko du kultur-etxean iluntzeko 20:00etan.

Azkenik, abenduaren 3tik urtarillaren 5era sexuen bizikidetzarako emakumeen zentroan 'Emakumeen kontrako indarkeriaren egiak eta gezurrak' argazki erakusketa egon-

go da ikusgai, 'Asociación por la igualdad' taldearen eskutik.

Beldur Barik

Aurtengo berrikuntza nagusia Beldur Barik bideo lehiaketa izan da. Denera hiru lan aurkeztu dira herri mailan. 12-17 kategorian, Aroa Lopez, Julene Illaramendi eta Ane Galardiren 'Altxa emakumea, hautsi zure kateak' soilik aurkeztu da. 18-30 kategorian berriz, Xabier Muñozen 'Bazen behin neska bat beldur barik' eta Ainhoa Mendiluze, Ane Labaka eta Irati Perezen '(Hel)mugak'.

Ekitaldi nagusia bihar egingo da Manuel Lekuonako areto nagusian, 20:00etan hasita. Bideoak pantaila handian proiektatuko dira eta ostean, sariak banatuko dira.

Ondoren, 22:00etan, 'Magical Girl' pelikula emango da, Donostiako Zinemaldian film onenaren urrezko maskorra eta zuzendari onenaren zilarrezko maskorra lortu dituen Carlos Vermuten



obra. Sarrerak on-line 4,24 euroko prezioa izango du, eta lehiatilan 4,70 eurokoa. Igan-dean berriro emango dute.

Azaroaren 25a

Emakumeenganako indarkeriaren aurkako agerraldia egingo da asteartean Okendo Plazan, arratsaldeko 19:00etan. Aurtengoan, 100 herritarren artean puntu more erraldoi bat osatzeko asmoa dute, Kukuka dantza eta antzerki eskolako kideek inguruan dantza desberdinak gauzatzen dituzten bitartean.

Izaskun Oronoz Gizarte Zerbitzuen arloko arduradunak esan zuen muralean parte-hartu nahi dutenek aste honetan Emakumeen Zentro-tik pasa behar dutela txarteltxo batzuen bila, egunean bertan kartel more batengatik aldatzeko gero.

Dena den, herritarren bat txartelik gabe geratuz gero, beldurrik gabe elkarretaratze-ra hurbiltzeko deia zabaldu dute.

**leima** Antenas S.L.

**ANTENA KOLEKTIBOetan INSTALAZIOA, MANTENUA eta KONPONKETA**

**ZURE KOMUNITATEA, DIVIDENDU DIGITALERA EGOKITZEN DUGU!**

**Zatoz eta galdetu!**

Hipodromo 6 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 247034  
leimalasarte@euskalnet.net

Neure kabuz



**Ane Labaka**  
Efemerideak

**E**femerideak guban zauriak direlako, norberak bakarrik minez ospatzen ditugulako. Anariren ahots bereziaren oihartzunak iritsi zaizkit barrura. Badirudi zenbait kanta belarriekin baino erraiekin entzuten ditugula.

Eta pentsatu dut baietz, beste behin ere arrazoa duela azkoitiarrak. Etorkizunerantz doan orain honetan etengabe jotzen dugula iraganera. Eta zer da ba iragana efemeride multzo bat ez bada? Hauetako zenbait, hala ospatzen ditugu; minez eta bakarrik. Betirako zirudien bikote harreman hartako pertsona berezi hura eza-gutu genuen eguna, beti ondoan izan arren duela bi urtetik ondoan falta zaigunaren urtebetetze eguna... eta guban zauriak sortzen dituzten beste hainbat. Efemeride txikiak direla esango didazue. Ez direla historia liburuetan edo egunkarietako azaletan ageri eta, beraz, ez direla Lehen Mundu Gerraren amaiera egunaren nahiz Mozarten jaiotza egunaren pareko. Txikitasunak, ordea, norberari eragiten diotenaren arabera behar luke izan.

Nik ere, noski, baditut nireak. Barruan minez eta bakarrik ospatzen ditudanak zenbait, lerro hauetan kabidari ez dutenak. Beste zenbait, berriz, konpartitzeko modukoak, minez baino, pozez bizi ditudalako. Kontatu dezaket noiz erditu ninduten irauli nahi dudan mundu honetara, noiz zirriboratu nuen nire lehenbiziko musua... Borobildu dezaket azaroaren 14a, adibidez, oroitzeko duela urtebete irten zinetela kalera, utzi zizuetela kalera irteten. Sentitzeko, batik bat, bakarrik eta minez bizi ditudanez gain, horrelako efemeride txiki gehiago desio ditudala nire barruko egutegian.

Zorion agurrak



Amaiur

Zorionak gure printzesa preziosari. Muxu pilo, Ekain, aitatxo eta amatxoren partetik. Asko maite zaitugu!!!



Manex

ZORIONAK maitia! Segi beti bezain jator. 6 muxu handi familia eta lagunaren partez.



Marian

Aupa sukaldari!!! Zorionak!!! Ondo ospatu zure urtebetetze eguna. Gu guztion partetik.



Irune

Zorionak Irune, hamaika muxu Ander, ama eta aitaren partez.



Leire

ZORIONAK sorgina, eskerrik asko 2 urte hauengatik!!! familia guztiaren partez.



Hodei eta June

Zorionak politikak zuen 7. urtebetetzean! Oso ondo pasa eta muxuak gurasoen partetik.



Katixa

Zorionak etxeko printzesa!! Dagoeneko 6 urte gure maitia. 6 muxu potolo, ama, aita eta Aiur.



Irati

Zorionak artista! Ondo pasa zure eguna eta segi horrela! Etxekoen partez. Muxuak!



Natalia

100 urte!!! Zorionak txapelduna! El Mallotik Lasartera. Asko maite zaitugu.

Azoka txikia

Salerosketak

- Garaje itxia salgai erdialdean, Zapategi kalean. 14 metro karratu ditu. 22.000 euro. 607 49 16 63 Aritz.
- 75m2ko etxea alokatzen da Sasoetan. Hegoaldera ematen du eta hiru gela eta bi komun ditu. 605 77 04 36
- Garajea saltzen dut Antxuenea Enparantza 5ean. 600 414 331
- Garaje marra alokatzen dut Urbarten. Merke. 648 61 47 69.
- Tableta salgai. Nevir marka, android 4.1 sistema. GPU 512MB / RAM 4GB. 680 98 35 27
- Etxebizitza alokatzen da Sasoeta auzoan. 2 logela ditu eta berogailua etxe osoan. Telefonoa: 649 52 67 66
- Garaje itxia alokatzen da Kale Nagusian, Maxi Dia inguruan. 60 euro 943 57 59 64

Lan-eskaria

- Pertsona nagusiak zaintzen, etxean edo kanpoan lan egiteko prest. Badauzkat paperak. 674 59 80 99.
- Pertsona arduratsua eskaitzen da lan egiteko. Esperientzia zabala adinekoren eta gaixoen zaintzan. Oraintxe hasteko prest. 680 98 35 27
- Edadeko jendea zaintzeko prest. Paperak eta esperientzia. 645 78 72 72.
- Emakumea lanerako prest. Esperientzia fruta-dendan, pintaketetan, nagusiak zaintzen, nekazaritzan. 609 34 44 28
- Lana bila nagusien zaintzan. Paperak egunean eta esperientziarekin. 602 59 67 35 Jenny
- Interna edo externa moduan garbiketa edota zaintza lanak egiteko prest. 639 41 22 33
- Interna moduan pertsona helduak zainduko nituzke. Esperientzia eta paperekin. 645 78 72 72

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Alex Gil Infante azaroaren 14a.
- Naiara Garcia Morales azaroaren 9a.
- Mario Pesado Garcia azaroaren 9a.
- Izar Tercero Posada azaroaren 5a.



Heriotzak

- Pedro Zabaleta Garro azaroaren 17an, 82 urte zituela.
- Juan Angel Arzallus Santamaria azaroaren 13an, 44 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

- Larunbata, 21**  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 943 363549
- Igandea, 22**  
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 363549
- Astelehena, 23**  
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 363549
- Asteartea, 24**  
Urbistondo, San Frantzisko 1 943 366567
- Asteazkena, 25**  
Gandarias-Urbe, Iñigo de Loyola 9 943 019521
- Osteguna, 26**  
Orue, Jaizkibel plaza 2 943 362652
- Ostirala, 27**  
De Miguel, Kale Nagusia 32 943 371151

**GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero**  
Aizpuru, Latxunbe Berri 11,  
Hernani, Tel.: 943 336 077

Larrialdi telefonoak

- Osasun Zentroa 943 007960
- DYA 943 464622
- Gurutze Gorria 943 363953
- Udaltzainak 943 362442
- Ertzaintza 943 288888
- SOS Deiak 112

Udalaren telefonoak

- Erregistroa 943 376055
- Euskarako Zerbitzua 943 376184
- Kiroldedia 943 376182
- Kulturetxea 943 376181
- Gizarte Zerbitzuak 943 376179
- KIUB 943 361605
- Udal euskaltegia 943 361621
- Munterri AEK 943 372863

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA  
UDALA

Laguntzailea



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAIA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GFako Kultura eta  
Euskara Departamendua

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
**943 366 858/943 371 448**  
G-20407557  
**Legezko gordailua:**  
SS513/93  
ISSN: 1134-0053  
**Inprimategia**  
Zeroa Multimedia, S.A.  
**Aleak zenbakiko:** 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maider Azurmendi, Iñigo  
Gonzalez, Jon Altuna E.  
**txintxarri@txintxarri.info**  
**Publizitatea eta administrazioa:**  
Arantza Artola  
**publizitatea@ttakun.com**  
**administrazioa@ttakun.com**  
**Laguntzaileak:**  
Unai Muñoz, Gorka Lasa,  
Ane Labaka, Mailu Arruti,  
Asier Odriozola, Jone M.  
Hernandez, Jexux Artetxe, Pako  
Aizpitarte, Edu Galardi  
**Informatikoa:**  
Xabier Amadoz

## UDALA

# Atsobakar egoitza, eskualdatuta

## Diputazioak hartuko du bere gain zaharren egoitzaren kudeaketa

Orain arte Udaletxeak kudeatu duen arren, Gipuzkoako Foru Aldundiak hartuko du bere gain Atsobakarreko egoitzaren ardurara. Asteleheneko ezohiko Udaltzarrean alderdiek onartutako neurria da hori, EHBildu, PSE-EE, EAJ eta LOHPren aldeko bozkekin. PPK berriz, kontra bozkatu zuen.



Ez da murrizketarik egingo Astobakarreko zaharren egoitzan.

## TXINTXARRI

Gipuzkoako Batzar Orokorretan PSE-EE eta Bilduk lortutako adostasunaren testuinguruan kokatzen da Atsobakar eskualdatzearen erabakia.

Diputazioak *Kabia* erakunde sortuko du, Gipuzkoako hainbat zaharren egoitza kudeatuko dituen, eta horietako bat izango da Lasarte-Oriako Udaltzarrek astelehenen hala erabaki ondoren.

## Gehiengoz onartuta

Udaltzarren premiazkotasuna onartu ostean, eguneko gai-zerrendako puntu bakarra jorratzen hasi ziren alderdiak.

Pablo Barrio alkateak Atsobakarreko egoitza Udaletik Aldundira eskualdatzeari dagokion hitzarmenaren gaia mahai-gainean jarri ostean, bozketari ekin zituen.

Denera 13 aldeko bozka jaso zituen proposamenak eta kontrako bakarra: PSE-EEK, EHBilduk, LOHPk eta EAJk eskualdatzearen alde bozkatu zuten, PPKo zinegotzi bakarrik berriz, kontra. Ez zen abstentziorik izan.

Bai ordea hutsuneak, PSEko

Nerea Artamendi zein Martin Moreno eta adskribatu gabeko Marisa Zubiri zinegotzia ez ziren udaltzarrean izan.

## Bozkaren zergatia

Emandako bozka justifikatze txandetan, Vanessa Velez PPko zinegotziak azaldu zuen ez dagoela Diputazioak "bere zereginak" betetzearen aurka, "formak" iruditzen zaizkiola desegokiak eta "informazio falta" salatu zuen, gaiak hainbesteko presa zergatik duen galdetzearekin batera.

PSE-EEko bozeramaile Jesus Zaballosek bere aldetik, "egun pozgarria" zela adierazi zuen, baina Lasarte-Oriako Bilduri ohartarazi zion akordioa Batzar Orokorretan lortua izan zela eta komunikabideetan euren "meritu" gisa ez saltzeko eskatu zion koalizio abertzaleko zinegotzietan.

Gainera, egoitzaren fakturazioa Diputazioaren eskutara pasako bada ere, talde sozialistak Udala Gobernuari eskatu zion eskualdatzearen "gainean" egoteko, akordioa betetzen dela ziurta dezan. "Inolaz ere ezin da onartu edadetuak eta langileak izatea egoera berri honetatik kal-

tetuta aterako direnak", zehaztu zuen Zaballosek.

EH Bilduri dagokionez, Gorka Lizarraga Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak adierazi zuen "berri ona" dela herriarentzat. Gaiaren urgentzia ere justifikatu zuen, "luzatu izan balitz, fakturak ordaintzen jarraitu beharko luke Udalak, beraz, ahalik eta gehien aurrezteko hartu nahi izan dugu lehenbailehen erabakia".

Egoitza eskualdatuta, Udalak urtero 800.000 eta milioi bat euro artean aurreztuko dituela esan zuen Lizarragak eta diru horren "zati handiena" 2015eko aurrekontuetan Gizarte Zerbitzuak indartzeko erabiliko dutela adierazi zuen, bereziki "etxeko laguntza zerbitzua" sustatzen.

Murrizketarik izango ez dela ere esan zuen Lizarragak: "Atsobakarren langileria batzuek beste arazoaren gainetik dagoen arren, Aldundiarekin adostasunera ailegatu gara eta 16 edadeko gehiago jasoko ditugu".

"Akordio bidez lortu dugu adostasuna; ea aurrerantzean gauza gehiagotan elkar ulertzeko gai garen", adierazi zuen Lizarragak.

## IKASTAROA

## 'Bihotz eta biriken suspertzea' ikastaroa bihar Urbilen

Bihotz Biriken Susperketa (BBS) nola egin erakutsiko du DYAk bihar, Urbil merkatal gunean, arratsaldeko 18:00etan. DYAk kideek azaldu dutenez, interesa duen pertsona orok "10 minututan" ikasi ahalko ditu BBS teknikak: "Edozein adinetako pertsonak etorri daitezke, aurretiazko osasun ezagutzarik eduki edo ez". DYA elkartetik animatu egin nahi ditugu herritarrek ikastaro horretan parte hartzea", adierazi dute DYAk kideek.

## JAIK

## Santo Tomasen postua jartzeko deialdia

Ttakun Kultur Elkartek Santo Tomas egunean postua jarri nahi dutenei deialdia luzatzen die. Kontutan hartu eta baloratuko da jendeari harrera euskaraz egitea eta Santo Tomas egunaren filosofiarekin bat egitea, jantziei eta eskaintzari dagokionez. Interesatuak abenduaren 15a baino lehen [kultura@ttakun.com](mailto:kultura@ttakun.com)-era mezua bidali beharko dute. Honetan erakundearen edo arduradunaren izena jarri beharko da, harremanetarako telefono zenbaki bat eta labor azalduta postuan izango den eskaintza.

Ttakunek eskaera guztiak jaso eta berehala jarriko da harremanetan eskaera egin duten herritarrekin. Hauen artean, lehentasuna izango dute herriko taldeek.

## IKASTAROA

## Talo ikastaroa abenduaren 15ean

Ttakunek Santo Tomas eguna dela eta iaz bezala Talo ikastaroa antolatu du. Abenduaren 15an izango da Arrieskalleta elkartearen eta honetan parte hartzeko, aurrez izena eman beharko da Ttakunen. [kultura@ttakun.com](mailto:kultura@ttakun.com) helbidean edo 943 37 14 48 zenbakira deituta. Ikastaro irekia da.

## MUSIKA

## Gabezia taldeak Bilanx bira hasiko du bihar Elebeltzen

Lasarte-Oriako Gabezia metal taldeak Bilanx diska berria aurkezteko baliatuko du bihar gaueko 21:00etatik aurrera Elebeltzen emango duen kontzertua. Gabeziak gain, Meltdown, IzuNauk eta Hilotz herriko taldeek joko dute.

Gabezia taldea Julien Basterrak, Guillermo Carcedok, David Carcedok eta Guillermo Murciak osatzen dute eta buru-belarri ari dira lanean 2012az geroztik. Diska bat badute dagoeneko, 'Gizakia etsai' eta 'Bilanx' diska berriko bederatzik kantak *Iparmendebaldeko Jainkoa*, *Atabismoa*, *Aszeta Gorena*, *Kitea Takite*, *Bidaiari Iluna*, *Bilanx*, *Maitasun Kontuak*, *Kondena Bikoitza*, *Ideien Trafikoa* eta *Trantsizioari Ipuina* dira.

Gira abiatuko dute gainera bihar euren bigarren diska aurkezteko: abenduaren 6an Bartzelonan izango dute hurrengo hitzordua eta Salamanca, Madrid, Miranda de Ebro, Iruñea, Lueña, Santander eta Cuencan joko dute neguan.

# Sasoetako Urtxintxek ikasturte honetan ere ekintzak egingo dituzte

Sasoetako Urtxintxak ekimena abian jarri du Burunzpe Guraso Elkarteak, bigarren urtez. Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko umeen artean euskararen erabilera indartzea da ekimen horren helburu nagusia, Burunzpeko kideek azaldu bezala.

Bihar egingo dute aurtengo ikasturteko lehenengo ekintza: joko batzuk egingo dituzte lehenengo, eta gero 'Erpurutxo' antzerkia ikustera joango dira denak elkarrekin kultur-etxera.

"Ikastetxeko haurren guraso euskaldun bolondresak"

antolatzen dituzte Sasoetako Urtxintxentzako ekintzak, Burunzpe guraso elkarteok adierazi dutenez.

## Hamaika ekintza

Aurtengo egitarau osoaren berri ez du eman Burunzpe Guraso elkarteak, baina biharkoaz gain ekintza gehiago antolatuko dituela pentsatzeko arrazoiak badaude.

Lehenengo urtean urtxintxek egindako irteera zerrindari begiratu bat ematea besterik ez da egin behar; hainbat irteera, joko eta ekintza burutu zituzten, "euskaraz hitz



Sasoetako Urtxintxak, lehenengo ikasturtean egindako irteera batean.

eginez" eta aldi berean "ongi pasatuz".

Lasarte-Oriako inguruko hainbat lekutara egin zituzten

irteerak Sasoetako Urtxintxek: esaterako, Zubieta ingurura joan ziren, bertan lurperatutako balearen bila. Pista ba-

tzuk jarraituz, topatu zuten azkenean bale hori.

Horrez gain, Benedika mendira ere igo ziren Sasoetako Urtxintxak. Mendian bakarrik ez, hondartzan ere gustura ibili ziren Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko haurrak. Neguan joan ziren hondartzara.

Burunzpe Guraso Elkarteok zehaztu bezala, "umeekeko primeran pasa zuten antolatutako genituen ekintzetan eta, batez ere, euskaraz hitz egiten asko gozatu zuten". Bihar hasiko dute ikasturte berria Sasoetako Urtxintxek.

# Santa Zezilia eguneko emanaldi berezia

Udal Musika Eskolako ikasleek kontzertua eskaini dute bart kultur-etxean

**Bihar, Santa Zezilia eguna izango da, musikari guztien eguna. Hau dela eta herriko musikarien harrobiak emanaldi berezia egin zuen atzo. Instrumentu ezberdinetako ikasleek pieza klasikoak modernoagoekin uztartu zituzten festa giroko kontzertu alaia eskainiz. Herriko Alboka abesbatzak ere, igandean abestuko du Oriako kaperan 11:30eko mezan.**

## TXINTXARRI

**S**anta Zezilia, musikarien eguna ospatu zuten atzo Udal Musika Eskolako ikasle eta irakasleek kultur-etxearekin zuten kontzertuarekin.

Denetarik instrumentuen doinuak entzuteko aukera izan zuten Manuel Lekuonara hurbildu ziren herritarrek: gitarrak, pianoa, trikitixa eta panderoa, flautak eta biolinak arratsaldeko zazpietatik aurrera.

Era guztietako abestiak entzun ahal izan zituzten herritarrek atzo: herrikoiak, klasikoak, exotikoak... entzun ziren doinen artean 'Nere herriko neskatxa maite' eta 'Xalbadorren heriotza' kanta euskaldunak edota 'Frere Jacques' eta 'La Bamba' ezagunak jo zituzten gaztetxoek,

ikasturtean ikasten ari direnaren erakusgarri.

Aretoa bete egin zen musikari gazteak entzuteko eta guraso eta lagunek txalo zaparrada luzeekin erantzun zuten gazteen trebezia eta ahalegina. Larunbatean, azaroaren 22an izango den Santa Zezilia musikarien zaindariaren egunaren aitzakitan egin zuten atzoko emanaldia, festa giroan.

## Alboka Abesbatza

Udal Musika Eskolakoak ez dira izango musikarien eguna ospatzen bakarrik. Igandean, Alboka Abesbatzak Oriako Karmengo Amaren kaperan abestuko du Santa Zeziliaren omenez, 11:30tako mezan.

Meza ondoren, 14:00etan, Albokako bazkide eta koralistek Goiegi jatetxean bazkalduko dute.



'Nere herriko neskatxa maite' abesti ezagunarekin eman zioten hasiera kontzertuari gitarrajole gaztetxo hauek.



'Egun da santi mamiña' bezalako abestiek girotu zuten atzo Manuel Lekuona kultur-etxea.

## 'Gerra txikia'



Lander Garro idazlea Irakurleen txokokoekin solasean, asteartean.

**A**urtengo ikasturteko bigarren nobela da 'Gerra txikia', eta errefuxiatu bizitza du ardatz. Xabi Ugarte 12 urteko gaztetxo da protagonista. Errenteriako idazlea elkarriketatu zuen Txintxarrik

lehenengo astean, eta honela zioen: "Ez nuen nahi politikaz eta munduaz irudi irmo bat daukan kontalaririk nahi; kanpotik begira ari zen norbaiten ikuspegia nahi nuen, ez dakienaren eta epaitzen ez duenaren xalotasuna. Haurtzarora kosmos erakargarria iruditzen zait, umeek daukaten optimismo hori".

Irakurleen txokoaren aurtengo ikasturteko bigarren nobela da 'Gerra txikia', eta errefuxiatu bizitza du ardatz. Hurrengo abenduaren 16an egingo dute, 2014. urteko azkena. Jon Miranderren 'Haur besoetakoak' aztertuko dute saio horretan.

## Artea, herria itxuraldatzeko

**M**odu asko egon daitezke herri bateko merkataritza sustatzeko. Horietako bat artea izan daiteke; hala uste du Lasarte-Oriako Udalak, eta 'Lasarte-Oria Guztiona' egitasmoa jarri du martxan, herriko komertzioak sustatzeko 'Biziberritzen' proiektuaren adar bat.

"Lasarte-Oriako komertzioak sustatu nahi ditugu, interbentzio artistiko zehatz batzuk eginez. Era berean, herriko gune desitxuratuak konponduko ditugu, Lasarte-Oriari beste itxura bat emanez", adierazi du Udalak.

Amaia Illarreta arkitektoa kontratatu du Udalak egitasmoa zuzentzeko, herriko artistekin elkarlanean. Lantalde bat eratzeko asmoa dute, erabakitze nolakoa izango den 'Lasarte-Oria Guztiona' egitasmoaren diseinua.

Asteartean egin zuen lehenengo bilera Udalak herriko artistekin. Villa Mirentxun egin zuten. Artistek proiektuaren ildo nagusiak ezagutu zituzten Illarretaren eta Udalaren eskutik.

Illarretak zehaztu zuen "martxorako" eduki nahi dutela prest proiektua: "Gure



Asteartean egin zuten 'Lasarte-Oria Guztiona' egitasmoaren lehenengo bilera.

asmoa da martxorako erabakita edukitzea zer eta non egin nahi dugun. Egitasmoaren gauzatzea atzeratu egingo da beharbada, baina martxorako zehaztu nahi ditugu ildo nagusiak".

## Proiektuaren ezaugarriak

Lasarte-Oriako artisten lantalde bat eratu ostean, bizpahiru bilera egingo dituzte, egitasmoaren oinarriak finkatzeko eta zer eta nola egin erabakitzeke.

Udalak identifikatu ditu dagoeneko herriko zenbait gune desitxuratu; artistek ikusi zituzten eraldatu dai-

tezkeen zenbait gune. Udalak zehaztu zuenez, oraindik erabakitzeko daude artearen bitartez itxuraldatuko diren guneak. Artistek ere proposamen batzuk egin zituzten bilera bukaeran.

Lasarte-Oriaren itxura aldatzeaz gain, proiektuaren beste alor bat mural lehiaketa izango da. Lehiaketaren ezaugarriak zehazteke daude oraindik, baina deialdia irekia izango da, parte hartu nahi duen ororentzat.

Herriaren itxuraldaketa berriz, lasarteoriatarren zeregin izango da, Udalak jakinarazi zuenez.

# Jalguneren jaialdia azaroaren 29an

“Munduko 8. miraria” izateko hautagaitza aurkeztu dute Jalguneko kideek

Adimen urritasuna duten pertsonen eguna da abenduaren 3a. Hori ospatzeko, jaialdia antolatu du Jalgone elkarteak. Hainbat ekintza antolatu dituzte azaroaren 29rako, atzo emandako prentsaurrekoan zehaztu bezala. Jaialdia iragartzeko baliatu zuten atzoko agerraldia, baina baita hautagaitza baten berri emateko ere: “Munduko 8. miraria” izateko prest ikusten dute euren burua.

TXINTXARRI

Aparteko ezaugarriak edukitzeagatik dira miretsiak pertsona, gertakari eta gauza batzuk. Miresmena eta harridura sortu dute urteotan gure elkarteko taldekideen ezaugarriek. Beraz, mirari bat garelako sentitzeko arrazoiak baditugu”, adierazi zuten Jalguneko kideek atzo.

“Lehenengoak izatea gusatzatzen zaigu, baina azkenak izatea ere bai. Ekintzetan parte-hartzea dugu gustuko batez ere. Umorea badugu, ona eta txarra. Erromantikoak, originalak, maniatikoak, alferrak,

gardenak eta ameslariak gara”, esan zuten Jalgone elkarteko kide gazteenek, denek batera.

## Jaialdia azaroaren 29an

Jaialdia Manuel Lekuona kultur etxean izango da; 18:30ean hasiko da. Hainbat pertsonak eta elkartek hartuko dute parte Jalgunek antolatutako festan: Semblante Rocierok, Sasota-Zumaburuko eta Nahaste Borrasteko haur eta helduek, dantza egin eta bertsoak botako dituzten beste hainbat lagunak, etab.

Jaialdiko emanaldiez gozatzearaz gain, protagonistekin argazkiak ateratzeko aukera



Jalguneko elkarteko neska-mutil eta begiraleak, Gorka Lizarraga Gizarte zerbitzueta zinegotziarekin, atzoko prentsaurrekoan.

edukiko dute ikusleek, bukaran. ‘Photocall’ bat jarriko dute harreran, ikusleek argazkiak ateratzeko Jalguneko kideekin batera. Egun horretan ateratako argazkiekin “lagunen ahalik eta album politena” osatu nahi du Jalgunek, eta “ospakizunaren oroigarri” gisa gorde.

Jalguneren jaialdiko argazkiak nahi dituzten pertsonak mezu bat bidali beharko dute [ot\\_jalgun@hotmail.es](mailto:ot_jalgun@hotmail.es) helbidera. Jalgunek zenbait argazki eskegiko ditu baita ere Inter-

neten, bere Facebook orrialdean hain zuzen.

## Jalguneren lagunak

Azaroaren 29ko jaialdia eta munduko 8. mirari izateko hautagaitza aurkezteaz gain, Jalguneko kideek “eskerrak” eman zizkieten jaialdian eta urte osoan zehar “isilean lan egiten” duten lagun guztiei: “Guztira, 100 bat pertsonak laguntzen digute aldageletan, bideoak muntatzen, argazkiak ateratzen... Haiei esker, posi-

ble izango da jaialdian parte-hartzaile eta ikusleek primeran pasatzea”.

“Laguntzaile guztiak miresten ditugu; beraz, eurak ere hautagai bikainak dira munduko 8. miraria izateko”, adierazi zuten Jalguneko kideek. Lasarteoriarrak jaialdian gonbidatuz amaitu zuten atzoko agerraldia: “Gurekin primeran pasatzera gonbidatzen zaituztegu! Munduko 8. mirari izendatuko ote gaituzte? Ze esaten/k?”.

## GHPko taberna



Lasarte-Oriako Langabetuen plataformak kudeatu zuen iaz GHPko taberna.

Herriko irabazi asmorik gabeko” elkartei egin die gonbita Udaleko Gazteria, Festak eta Kirolak sailak, Gabonetako Haur Parkeko taberna eta sarrera kudeatzeko. “GHP parkean 11 egunez egin beharko du lan aukeraturako elkarteak. Egun horietan ateratzen den dirua elkartearentzat izango da; helburua da diru-sarrera bat eskaintzea irabazi asmorik gabeko taldeei, egiten duten

lana baloratzen dugulako. “Hautaturako elkartearen ardura izango da GHPko sarreraren kontrola eta tabernaren kudeaketa”. Honen horniketa eta ustiaketa osoa ere taldeak kudeatuko du.

Abenduaren 15a baino lehen sartu behar da eskaria erregistroan. Proiektuak aztertu eta oniritzia emango zaie. Onartzen direnekin zerrenda osatu eta zozketa egingo da.

## 2015eko Tratu on bat egutegia, martxan

Lasarte-Oriako hirugarren sektorea osatzen duten komertzioak izango dira 2015eko Tratu on bat egutegiko protagonistak. Haiekin bilera egin zuen Udalak astelehenean.

Udaleko Merkataritza teknikari Dioni Avilak eta Tratu on bat markaren webgunea sustatzen ari den Ivan Manzanok eman zizkieten azalpenak hurbildu ziren merkatariei, ostalari eta zerbitzuak eskaintzen dituzten pertsonari. Egutegiaren helburua “herriaren oinarriko sektore ekonomikoa osatzen duten komertzio txikiak bultzatzea” dela esan zuen Avilak: “Egutegiaren bitartez, hirugarren sektoreak herrian ahalik eta bultzada handiena izatea nahi dugu”.



Bilerara joan ziren komertzioetako ordezkariak argazkia atera zuten bukaeran.

## Sei argazki

laz baino bi argazki gehiago izango ditu 2015eko egutegiak; sei guztira, bi hilabeteko bat. Asier Esparza argazkilari herriarrak egingo ditu konposizio horiek. “Aurtengo argazkiak hirugarren sektoreko ordezkarien etxeetan egitea da gure asmoa”, azaldu zuen Esparzak. Aurtengo egutegiko arga-

zkiak etxe giroan islatuta egotea nahi du Udalak. Hori dela eta, bileran banaturako orrietan komertzioek zehaztu behar zuten ea prest zeuden euren etxeak erabiltzeko egutegiako argazkiak ateratzeko.

Deialdia irekia dela nabarmendu zuen Avilak, eta bilera joaterik izan ez zutenei ere luzatu zien gonbitea.



**Sebastián Redondo**

**ITURGINTZA  
GASA  
KALEFAZIOA  
GREMIOEN KOORDINAZIOA  
ERABERRITZEAK**

# DUCHALASARTE

**24 ordutan, bainuontzia dutxagatik aldatzen dugu**




JAIZKIBEL ENPARANTZA 8 BEHEA, SASOETA AUZOA • TEL.: 943 371845 // 652 775373

## LABURRAK.-

## LOKEko Josu Olmos eta Haritz Urdangarin judokak Espainiako Superkopa lehian

Joan den asteburuan Espainiako Superkopa jokatu zen Amurrion. Josu Olmos izan zen bertan borrokan, 60 kiloz azpiko mailan. Bi konbate duin egin zituen Gorka Aristegi entrenatzailearen esanetan, nahiz eta biak galdu egin zituen arerio asturriar eta frantziar banaren aurka.



Egun berean, larunbatean, kadeteen superkopa ere jokatu zen. LOKEk bertan izan zuen Haritz Urdangarin gaztea (argazkian). Nahiz eta judoka frantziar baten aurka oso borrokaldi ona osatu, ezin izan zuen kanporaketa aurrera egin Urdangarinnek.

Datorren igandean berriz, Gipuzkoako senior eta infantil txapelketak jokatu dira taldeka Hernaniko tatamian eta Gorka Aristegik zuzentzen duen LOKE klubak lan txukuna egin nahi du etxetik gertu.

## Iñigo Altuna Buruntzazpiko txirrindularia garaile Amorebietako ziklokros proban

Lasarte-Oria eta Usurbilgo Bazpi txirrindulari taldeari 2014/2015 denboraldiko lehen garaipena eman zion Iñigo Altuna herritarrak igandean. Bi besoak jaso zituen Amorebietako (Bizkaia) helmugan eta garaipena duela urtebete zendu zen Ramon Unanue prestatzaileari eskaini zion, argazkian ikusten den bezala, behatzekin zerua markatuz.



Barrutia lehor zela, jubenil mailako 14 kilometroko lasterketa azkar eta teknikoa irabazi zuen Altunak, Oier Ajuriagerra eta Julen Latorreren aurretik. Bazpiko txirrindulariak 34 segundoko aldea atera zion bigarren sailkatuari eta garaipenaz nahibeste gozatzeko aukera izan zuen.

Jubenilen artean, lehen urteko txirrindularia da Iñigo Altuna eta urtez urte urrats bat aurrera egiten ari dela berretsi du asteburuan txirrindulari lasarteoriatar gazteak.

Errepideko denboraldiaren aurretik, ziklokrosa eta pista egiten dute Bazpiko ziklistek neguan.

## KIROL AGENDA.-

## FUTBOLA

Larunbata 22

**Berio, Donostia 12:00etan**  
Ekintza KE - Ostadar SKT  
Kadeteen I. maila,  
10. jardunaldia.

**Michelin, 12:00etan**  
Ostadar SKT - Etxezarra Zuria  
Kadeteen Euskal Liga,  
11. jardunaldia.

**Altamira, Ordizia 13:00etan**  
Ordizia KE - Ostadar SKT  
Infantil Txiki, Errendimendua,  
1. jardunaldia.

**Michelin, 15:30ean**  
Ostadar SKT - Orioko  
Jubenilen Ohorezko Maila,  
10. jardunaldia.

**Martutene, Donostia 15:30ean**  
Martutene - Ostadar SKT  
Jubenil I. maila  
10. jardunaldia.

**Harane, Usurbil 16:30ean**  
Usurbil - Ostadar SKT  
Ohorezko Erregionala  
11. jardunaldia.

**Michelin 17:15ean**  
Texas Lasartearra - Iluari  
I. Erregionala  
10. jardunaldia.

**Igandea 23**  
**Michelin 11:15ean**  
Ostadar SKT - Hernani  
Infantil Ohorezko maila  
8. jardunaldia.

**Michelin, 12:45ean**  
Texas Lasartearra - Euskalduna  
Jubenil I. maila  
10. jardunaldia.

**Karla Lekuona, Oiartzun 16:30etan**  
Intxaurdi - Ostadar  
Nesken Erregionala  
9. jardunaldia.

## ATLETISMOA.-

## LOKE, Gipuzkoako talderik onena

Gipuzkoako Atletismo Federazioak eman dio saria



LOKEren adin-tarte guztiekin ateratako talde-argazkia. Harrobi lana egiten duen kluba da Lasarte-Oriakoa.

**Urtea joan eta urtea etorri oinarrizko atletismoan ereindako haziak fruitua eman dute 2013/14 sasoian. Gipuzkoako talderik onena izendatu zuten ostiralean Oscar Goikoetxeak eta Amaia Andresek zuzentzen duten LOKE kluba. Itoitz Rodriguez gazteak ere etorkizuneko atleta onenaren saria jaso zuen Gipuzkoako Atletismoaren gala nagusian, Palacio de Aiete hotelean.**

## JON ALTUNA EGITEGI

Egin zieten errekonozimenduarekin "harrিতa" eta "eskertuta" hitz egin zuen Amaia Andres LOKEko presidente olimpikoak: "Ez genuen espero, eta poza bikoitza da taldeko lorpena delako, aurrera jarraitzeko sekulako indarra ematen digu. Familia txiki bat gara".

Izan ere, horixe baita LOKEren sekretuetako bat, isilean, Michelingo moduluan

metroz metro, saltoz salto eta ariketaz ariketa ikastea, haztea taldekideak eta entrenatzaileak alboan izanda.

"Argi dugu gure helburua herriko eta inguruko atletak formatzea dela, gero Gipuzkoako klub handiek fitxatu ditzaten, horixe da klubaren funtzioa", argitu zuen Andresek.

Atletak, gurasoak eta klubeko zuzendaritza izan ditu gogoan LOKEko presidentek eskerrak ematerako orduan, baina bereziki bi izen

aitatu zituen: "Xabi eta Eneko Castro aita-emeena da errekonozimendu hau, beraiek hasitako lanari jarraipena eman besterik ez diogu egin Oscar eta biok, oso berezia da guretzat", adierazi zuen.

## Itoitz Rodriguez, saritua

Aitortza berezia jaso zuen Itoitz Rodriguez Realeko atletak iazko denboraldiagatik.

Etorkizuneko atleta gipuzkoar onenaren saria eman zioten 2013/14 sasoian LOKE egindako lanarengatik. Euskadiko errekorra hautsi zuen 400 metroetan Valladoliden (48,39) eta brontzezko ezkurra jaso zuen saritan; Espainiako indoor txapeliduna izan zen Valentzian eta Bakura, Azerbajainera joan zen Gazteriaren Olinpiar Jokotako kanporaketa europarretan parte hartzera.

## SASKIBALOA

Larunbata 22

**Kiroldedia, 16:00etan**  
Ostadar SKT - Internacional  
Junior mailako Errendimenduko neskek 6. jardunaldia jokatu dute Lasarte-Oriako Udako kiroldegian.

**Altzako kiroldedia, 16:00etan**  
Cafés Aitona - Ostadar SKT  
Kadete mailako Errendimenduko neskek 6. jardunaldia jokatu dute.

**Igandea 23**  
**Kiroldedia, 9:30ean**  
Ostadar SKT - Zerkausi Take  
Kadete mailako Parte-hartzeko neskek 5. jardunaldia jokatu dute Lasarte-Oriako Udako kiroldegian.

**Kiroldedia, 11:00etan**  
Ostadar SKT - Antigua Luberri  
Senior mailan, Gipuzkoako 3. probintzialeko mutilek 6. jardunaldia jokatu dute Lasarte-Oriako Udako kiroldegian.

## ATLETISMOA

Larunbata 22

**Azkoitia 16:30ean**  
Herriko hainbat korrikalarik 10 kilometroko Azkoitiako X. Herri-Lasterketan parte-hartuko dute.

**Igandea 23**  
**Gasteiz 11:00etan**  
Lasarte-Oriako hainbat korrikalarik 10 kilometroko Gasteizko XVII. Herri-Krosean parte-hartuko dute Araban.

## ARETO-FUTBOLA

Ostirala 21

**Eskolapioak Ikastola, Tolosa 20:45ean**  
The Nest Zerbezeria - ISU Leihoak  
Gipuzkoako I. maila.

**Udal kiroldedia, 20:45ean**  
Ostadar Cecilia Fruta Denda Kebab  
Lasarte - Samaniego Orixe B  
Gipuzkoako 3. maila.

Larunbata 22

**Udal Kiroldedia, 20:45ean**  
Ostadar Antonio Aroztegia - Internacional Fachadas Gipuzkoa  
Nazional 3. maila.

Ostirala 21

**Michelingo kirol-gunea**  
Herriko areto-futbol txapelketaren zazpigarren jardunaldia jokatu dute.

**Michelingo kirol-gunea, 19:45ean**  
Trumoi - Viña del Mar  
**Michelingo kirol-gunea, 20:45ean**  
Reformas Lagunak - Izkiña Taberna

Larunbata 22

**Michelingo kirol-gunea, 9:15ean**  
Txindoki - Also Taberna  
**Michelingo kirol-gunea, 10:15ean**  
Txoko - Insausti  
**Michelingo kirol-gunea, 11:15ean**  
Urdaneta HK - Indaux  
**Michelingo kirol-gunea, 12:15ean**  
Bar El Punto - Bar Buenetxea

## Agenda

### Lasarte-Oria

#### Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 21, 22:00etan

"Magical girl" filmaz gozatu ahal izango da Okendo zinema taldeak antolatzen duen Zine Forum saioan. Aurtengo Donostiako Zinemaldian urrezko maskorra eraman zuen filma onenari eta zilarrezko maskorra eman zion epaimahaiak bere zuzendariari, Carlos Vermuti hain zuzen. Sarrera Interneten erosita 4,24 euro eta bertan 4,70 euro. "Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna" egitarauaren baitako ekintza.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 23, 17:00etan

"La leyenda del martillo mágico: Thor" filma ikusteko aukera izango da haurren zinema atalean. Sarrera Interneten 3,18 euro eta egunean bertan erosita 3,70 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 23, 19:30ean

Donostiako Zinemaldian saritua izan zen "Magical girl" filma helduen zinema atalean. Sarrera Interneten 5,30 euro eta bertan 5,90 euro.

#### Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Larunbata 22, 18:00etan

Teatro Paraiso konpainiaren "Erpuru-txo" haurrentzako antzezlan. Sarrera Interneten 2,70 euro, leihatilan bertan 3 euro.

Larunbata, 21:00etan Elebeltz



#### Metal gaua

Gabestia, Hilotz, Izu Nauk eta Melt down taldeen kontzertuak izango dira larunbatean Elebeltz topagunean. Gabestia taldeak lan berria aurkeztuko du eta Gipuzkoan emango duen kontzertu bakarra izango da. Sorpresa bat baino gehiago egongo dela aurreratu dute antolatzaileek. Urtebete lokalean pasa ostean, formazio eta kanta berriak aurkeztuko ditu ere Hilotzek, Izu Nauk taldeak bestalde "herri baten oihua" laneko kantak joko ditu eta azkenik, Melt-down talde hernaniarrak emango dio amaiera gauari. Sarrera 4 eurokoa izango da.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 28, 18:00etan

"Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna" egitarauaren baitan "Belarrira kontatzeko ipuinak" emakumeen zentroko Makelur antzerki taldearen eskutik. Sarrera libre izango da gonbidapenarekin.

#### Ipuin-kontalaria

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Larunbata 22, 11:00etan

"Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna" egita-

rauaren baitako ekintza. 4 urtetik gorako umeentzat "baziran behin neska abenturazaleak eta mutil ameslariak" Bea Egizabal ipuin kontalariarekin.

AMARAUN LUDOTEKAN

Astelehena 24, 18:00etan

3-4 urteko umei zuzenduta "Nolakoa naiz ni" ipuin kontaketa saio berria. Ekintzan parte hartzea irekia da baina aurrez izena eman beharko da, ume kopurua jakiteko. aisia@ttakun.com helbidera idatzi edota 943 37 14 48 deituta egin daiteke.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Osteguna 27, 18:00etan

Kontukantoiarekin ipuin kontalari saioa. Honakoa 6, 7 eta 8 urteko umei zuzenduta egongo da. Doan. Haurrak bakarrik sartuko dira eta saioa puntual hasiko dela azpimarratzen dute liburutegiko arduradunek. Behin saioa hasita, ezingo da bertara sartu.

#### Besteak

OKENDO PLAZA

Asteartea 25, 19:00etan

Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna dela eta Kukuka taldekoek dantza ezberdinak egingo dituzte plazan eta jarraian, 100 herritarren artean, puntu more handi bat osatuko da.

#### Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIA

Azaroan zehar

Urriaren 18an ospatu zen Euskal Jaiko argazki erakusketa ikusgai izango da hilabete osoan zehar Jalgin. Egun horretan ateratako argazki guztien artean, herriko Etxarri argazki dendak osatutako bilduma da.

#### Jaialdia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Larunbata 29, 18:30ean

Gure Ametsa-Jalgune elkarteak kideek urteroko Jaialdi erraldoia egingo dute kultur-etxean. Honetarako kanta eta dantza zein antzerki bereziak antolatu dituzte.

## Herritarren txokoa

#### Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota: hamar txirrinda, bi mugikor, bi pultsera, bideo joko bat, monopatina, bi diru zorroa, bateria eta urrunetik gidatutako auto kargatzailea, hortz protesi bat, graduatutako betaurrekoak eta eraztun bat. Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epea dute Udaltzainen Bulegora hurbildu eta jasotzeko, goizez 9:00etatik 13:00etara.

#### Kromo Aldaketa

Herritar talde bat Okendon igandetan kromo aldaketak egiteko hitzordua egiten hasi da 12:00etatik aurrera. Kromo bildumak osatzeko zaletasuna duten guztiak animatzen dituzte bertara gerturatu eta trukean aritzeko.

#### Usurbilgo Lanbide Eskola

2014ko ekainean ikasketak amaitu zituzten ikasleek tituluaren eskaera egiteko aplikatiboa martxan dago eta epe laburrean eskolatik pasa behar

dute. Bestalde, 2013an titulua eskatu zutenek hau jasotzera pasa daitezke.

#### Txintzarri banaketa

Aldizkariaren banaketan hainbat aldaketa egin ditugu. Hauek finkatu bitartean, gerta daiteke aldizkaria etxean ohiko ordutegian ez jasotzea. Hau gertatzen bada eskertuko genizuke gurekin harremanetan jartzea.

#### Maria Auxiliadoraren ohorezko meza

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza izango da Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan hilabetero bezala. Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da azaroaren 24ean, arratsaldeko 17:00etan.

## Hemeroteka

### Duela 1137 ale

1996ko azaroaren 8an txakurren kakek herrian sortzen zituzten kexak jasotzen zituen TXINTXARRIK erreportaje batean. Honetan txakurren jabeek azaltzen zuten berdeguneetara eramatea beste irtenbiderik ez zutela.

Batzuek zentzuzkotzat jotzen zuten euren txakurren gorotzak jasotzea, beste batzuentzat berriz, nahikoa zen jendea normalean ibiltzen ez zen lorategietara eramatea. Udalak ahalegin ezerdinak egiten zituela azaltzen zuen orduko osasun saileko lehen-dakariak "KIUBeko bulegoan pintzak eta poltsak doan daudela esaten da... Lorategi batzuetan txakurrak ez sartzeko txartelak jarriko ditugu. Esperientzia berria izango da eta jendeak zein jarrera duen ikusiko dugu".

Albaitariei galdetuta "herriak zoritxarrez ez daude antolatuta hainbeste txakur izateko. Azpiegitura aldetik ez dago leku egokirik animaliek euren beharrik egin ahal izateko. Ez da batere erraza baina irtenbideak badaude. Parisen esaterako, orduoro kaleko bide ertzetatik makina bat pasa eta kaka guztia eramaten du. Gainera txakurren batek kaka kalean egiten badu, jabeari isun bat jartzen zaio. Beraz, konponbideak badaude".



**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:**

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintzarri@txintzarri.info

# Nortasun ezkutatuaren bila

Islada Ezkutatuak taldekoek herritarrak identifikatzeko laguntza behar dute

**Islada Ezkutatuak Lasarte-Oria eta inguruetan 1936ko gerra eta ondoren aztertzen dituen elkarteak herritarren laguntza behar du jasotako argazkietan herritarrak identifikatzeko. Irudiak Maria Jesus Noguesek utzi dizkio taldeari eta bertan agertzen diren batzuen izenak jakin arren, beste aurpegi askori izena eta abizena jarri nahi diete. Informazioa duten herritarrei taldearekin harremanetan jartzeko eskatzen zaie [isladaezkutatuak@gmail.com](mailto:isladaezkutatuak@gmail.com) helbidean edo 695 75 65 56 zenbakian.**

## TXINTXARRI

Islada Ezkutatuak taldea herrian eta inguruetan 1936ko gerra aztertzen ari da. Helburua herritarren testigantzak jasotzea izan da baina baita garaiko dokumentuak zein argazkiak biltzea ere.

Kasu honetan, Maria Jesus Noguesek utzitako bi argazki helarazi ditu taldeak. Bietan, Lasarte-Oriako gudariak eta milizianoak ageri dira, Laredon 1937. urtean, jada euskal ejertzito errepublikarra erretiratzeko ari zenean, gerra galduta Bizkaiko frontearen.

“Zehazki ez dakigu non aterata dauden argazkiak, Laredo izan daiteke baina baita Santoña ere, inguru horretan”. Irailaren 15ean sartu zen ejertzitoa Lasarte-Orian, egun batzuetan Buruntzako frentea, Molaren agindupean Nafarroatik zetorren ejertzitoa gelditu zuen eta orduan, taldeko kideek uste dutenez, herritar asko ihesi atera zen kostaldera.

“Horrela abertzaleen kasuan, elkartzen eta antolatzen joan ziren talde ezberdinetan gerran parte hartzeko. Sozialistek aurre hartu zioten erasoari eta herrira iristerako, antolatuta zeuden batailoi ezberdinetan”.

Taldeko argazki hauetan ez dute zertan denak herrikoak izan behar “argazki hauek ba-

tzuetan bataloika ateratzen ziren, beste batzuetan berriz, nonbaiten herritarrak topo egin eta denak batera argazki bat ateratzea eskatzen zuten nolabait, oroigarri modura”.

Horrela, Lasarte-Oriako gudariekin ez litzateke arraroa izango inguruko herrietako lagunak ere agertzea.

## Izena jartzearen garrantzia

Testigantzak medio, dagoeneko identifikatu ahal izan dituzte kideetako batzuk baina falta direnen izen-abizenak jakiteko, herritarrei laguntza eskatzen diete.


Argazkiak ikusi eta norbait ezagutzekotan, [isladaezkutatuak@gmail.com](mailto:isladaezkutatuak@gmail.com) helbidera idatz dezakete herritarrek edota 695 75 65 56 zenbakian beraiekin harremanetan jarri.

“Abizena, izena edota mutil hori zein etxetakoan zegoen badu norbaitek ere lagungarria izango da guretzat”.

Jendea argazkiak ikusi eta harritu egin da ikustean herrian hain ezagunak izan diren pertsonak, Pako Astua esaterako, gerran inplikatu eta parte hartu zutela jakitean.

Irudi zein izen bakoitzaren atzean istorio ezezagun bat dagoela jakitun, argitara atera nahi dituzte herriko historiarren mapa osatzen joateko.

Orain arte herritarren erantzuna ona izan dela diote



Argazkia Laredon atera zela uste du taldeak, hala ere inguru horretako beste herriren batean izatea ez du baztertzen taldeak.


taldetik eta laguntza eskaera honek ere erantzuna izatea espero dute.

Artxibo lanean, badira taldeak gaintu beharreko hainbat arazo izan ere, Lasar-

te-Oria herria ez zenez, zaila da herritarrak izenez bakarrik identifikatu eta herriarekin lotzea, norbaitek aipatu behar dizkie izen hauek, eta Lasarte-Oriakoak zirela jakinda, ar-

txibora jo eta euren inguruan dagoena topatu ahal izateko.

Taldeak beste argazki batzuk baditu eta datozen asteetan TXINTXARRIK argitaratuko ditu.



Talde argazki hauek gerran, bataloika egiten baziren ere, Islada Ezkutatuak taldekoek aipatu dute, herriko jendeak topo egiten bazuten ere oso ohikoak izaten zirela lagun eta bizilagunekin batera oroigarria izateko.